

**EAEko IRAKASLEAK****IKHA/COCU 2024-2025**

Hezkuntza Sailak IKHA-COCUaren data proposamena ez du guztiz finkatu. Baliteke aurten esleipen prozesua atzeratzea, ezarritako egutegia ez betetzea, alegia. Beraz adi egon prozesu guztian zehar, aldaketak egon baitaitezke.

Hona hemen jaso dugun azken **BEHIN-BEHINEKO** proposamenaren datarik funtsezkoenak (**ADI!** Datetan aldaketak egon daitezke):

**EKAINAREN 24tik 30era**

Hautagaiek lanerako prest egoera aldatzeko epea ekainaren 24ko 12:00etatik ekainaren 30eko 12:00ak arte.

**UZTAILAREN 12tik 14ra**

Hezigunean lanpostuak eskatzeko epea (langile guztientzat), uztailaren 12ko 12:00etatik uztailaren 14ko 12.00ak arte.

**UZTAILAREN 16tik 26ra bitarte**

Uztailaren 16tik aurrera modu mailakatuan argitaratuko dituzte esleipenak.

**ABUZTUAREN 29a**

Ordezlagunean lanpostuak eskatzeko epea, abuztuaren 29ko 10:00etatik abuztuaren 29ko 17:00ak arte.

**ABUZTUAREN 30a**

Ordezlagunearen esleipenen emaitza argitaratuko da.

**IRAILAREN 2a**

Langile guztiek beren lanpostuan aurkeztu beharko dute.

**ZUZENDARITZA PRESTAKUNTZA**

Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko berariazko prestakuntza-programari buruzko ikastarorako deialdia argitaratu dute. [Sailaren web orrian](#).

**ZERBITZU EGINKIZUNAK**

**ITLENT eta TKNIKA**ren behin betiko ebazpenak argitaratu dituzte. Hemen dituzue loturak hurrenez hurren: [ITLENT eta TKNIKA](#).

**UDAKO KOBRAKETAN ATZERAP AUSORIK EZ!!!**[www.steilas.eu](http://www.steilas.eu)